



jarduna hizpide

Juan Garzia Garmendia


Nolako zenbat

Kopuruen gizartean bizi gara, zenbaki eta estatistikarenean. Ekonomia bera (gure mundu hau bilakaturaz doan azokan «zientzia» nagusi eta ia bakarra), besteak beste zerbait argudiozkoa ere izana oraintsu arte, grafiko matematikoen eta datu-pastelen piroteknia soil itsugarria izatera pasatu da. Kito diskurtsoa hor ere, eta harekin zifretatik haragoko pentsamendua: neurgarria da guztia orain eta hemen, eta zenbakiz ematen dena objektibo eta aseptikoa dela sinetsarazi nahi zaigu.

Gure hizkuntzaren ekonomia kokorreen ere, eta ez da harriztekoa, halaxe gabilta. Eta ez naiz ari bereziki Jesus Rubiok plazaratu duen ikuspegi eta proposamen berriaz bereziki, non izenburuko «garapen» hitzak autorearen jakintzarloak bezain garbi nabarmenarazten duen horretantxe ari dela. Ez naiz, ez, horretaz ari. Eta, bidenabar, Rubiorenak ere ez du aldar berezirik, nik uste, zenbakien sineskeria hain modakorantz. Iritziak eta argudioak darabiltza ekonomilariak berean, hara, hizkuntza-administratzaile gehienak zifra-saltsan txipli-txapla dabiltzala. (Soziologia, jakina, ekonomiaren ahaide txiroa baino ez da, askotan harroago agertuagatik.)

Esan dut zenbakikeriaren gaitz hori munduaren puska oso honena dela, baina gurean, eta besteak beste hizkuntzaren alorrean, are larriagoa delakoan nago. Hipotesi bat ere fantasiatu dut inoiz, Konfuzioren aforismo batetik tiraka. Badio txinatar filosofoak hitzen mailako zabarkeriak pentsamenduarena dakarrela, eta pentsamenduaren gauzen antolaerarena. Alderantziz ere uler liteke noski katea hori, edo zentzu bietan apika hobeki, baina nire asmabidea Konfuziorenetik doa zuzenean. Hona:

Erraz frogatu daiteke gure artean dagoeneko jende gutxi bereizten dituela behar bezala, esaterako, «indar asko» eta «indar handia» (erdaraz, jakina, inork ez du nahasten «muchas fuerzas» eta «mucho/gran fuerza»). Bada, batzuetan, bereizkuntza horren baitan egon liteke izatea ala ez izatea: zenbat indar d(it)ugun goiti-beheiti, banaka eta guztira indarra nolako dugun jakin beharko genuke, edo zenbaterainokoa bederen. (Bai, badakit asko zaudetela gure indarraren eskasia disimulatzearen alde, baina hori beste kontu bat da: disimulua kalkulatzeko



LYONEL FEININGER *Aut der Bruecke.*

ko ere —zenbat disimulu, eta nolako(k)— ongi letorke benetan zertan garen ikustea.)

Beste kasu bat. Hemen bakoitzak, bistan da, aldamenekoak baino «gehiago maite du» euskara, baina «hobeto maite» ote duen jakitea ere ez letorke gaizki. Eta, nolakotasun hori ere neurtzeko makina asmatzen ez den bitartean, agian ahalegina egin genezake maiteago izateko soilik, esamoldez eta eginbidez, intentsitate-graduan eginez gora, eta ez kopuruan (maitasuna bera ere kantitatea baita hizkera modernoan: «atzo baino gehiago baina bihar baino gutxiago») eta zifra hutsetan («zifra» eta «zero» hitzak etimologikoki bat eta bera dira). Nahiz eta ez den gauza segurua, bestalde, inori baino «gustatzenago» eta are «gustatzenen» zaionak ote duen, prexixo, maiteen (barka —zenbat pazientzia!—: *gehien maite*).

Hala, egunen batean, oraingo «arrakasta *pila*»tik zinezko aurrerabide handixeagorako martxan jar gintezke agian

poliki-poliki, halako hizkuntza-ariketa-txo xumeen poderioz: magia zozoagoetan sinetsita ez al dabil hainbat?

Beste arrasto batzuk ere aise eman nitzake. Pilotan eta (eta sasoi dugu, eta egun aproposa gaurkoa hartarako), kantitate-itxurako esapide batez egiten zaio oihi galtzaile sutsuari: «Mutxo!» (Aldizkari bat ere ba omen da —edo zen— izenburu horretakoa. Izugarri zaleak gara gu, izan ere, *elebitasun* mota horretak). Eta galtzaileari esaten zaiola diot «Mutxo!», zeren zenbaki-zenbakietan, jokoan dauden diruarenetan, ez baitira sekula deskuidatuko artekariak: ez mormioetan eta ez hizkuntzaren aukeran (duro zein euro): entzun, bestela, nonahiko frontoietan: gauza serioak —hala nola apustuak (eta negozioak)— hizkuntza serioan egitekoak dira.

Eta bien bitartean, apustuzale —euskaldun, erdaldun zein erdi-pentsionista— larrion haurrak, bapo ikastolaztatugatik gehienak, ez dira gauza markagailuaren zenbakiak deserdaratzeko ere:

«zazpi-bost» diote doala, edo «cerocero» partidua (barka: partida).

Eta, hutsean huts, «partida/partidu asko geratzen» dela ere bai, jakina, esataririk dotoreenari ere halaxe itzurtzen zaionez. Eta tira: sikiera «Mutxo!» esaten balekite hala dagokionean kimu berriok, gutxieneko kasieuskara edo baskoerara bizi horretan.

Hainbeste itxurakeria dabil, izan ere, euskararen numeroetan, eta gezur xuri horietako bakoitzari aitzakia bana (sic) bilatzen hain gara trebe, zifrak eta letrak, kontularitza eta kontalaritza bereizteko gai ez izanarren (edo, hain zuzen ere, bereizten ez dakigulako).

Ai, Konfuzio: hire izeneko zeta hori ere ese *ahozkatzen* ez diagu ba hemen gehienok! Hortik, beharbada, gure bost *astoramen*, eta, hain zuzen, konfusio.

Eta hara: batekoz beste ere ez dugu beti asmatzen. Izan ere, kantitate-esapidea dagokion kasuan, erdarak hala agintzen badigu, bestetara jotzeko kapaz gara: «ez zait gustatzen *ezer ere* hori». Neroni ere ez zait, ez, *ezertxo* ere atsegin nola gabiltzan; baina, tira, ikasi egin beharko dugu beharbada aurki, zaharkituok, garatu gabeok, hizkera berri horretara egokitzen, joko kanto geratu nahi ez badugu zenbakilariek harroki iragartzen diguten euskaren boom horretatik.

Batere asmorik ez dut dagoeneko, itxaropen luzerik are gutxiago dudanez, «mundu onetan dijoan martxa» orokorra guztiz aldatzeko, baina ez nuke hil nahi pentsaturik —barkatu apeta eta patetismoa— azken euskaldun apurrek (nahiz etorkizuneko milioiekek, berdin dio kasurako), beren hizkuntzatxo apalean, kantitate eta kalitatea, zenbat eta nolako, ez dituztela bereizten.

Egingo didazue, bada, mesede? Nigatik egingo duzue? Ala ez zaio inori *gehiegi* inporta nolako ezezirik, zer den ere gauza, zenbakien txintxin distiratsuak belarriak eta barrenak gortzen dizkigun bitartean?

Suerte asko izan, hala ere, guztiok. Edo nolakoak zaretela ere, eta zenbatnahi: zazpi zeru dituzue irabaziak, nigatik, edozertarako bulda osoa, prediku etsi hau basamortutik jasotzen ahalegintzearen truke. *Gutxi* atsegin izanagatik.

(P.S: Ez du zerikusi ageri-agerikorik (infinitu maximalista zenbakiez haraindi doa itu), baina inork aurrea hartu baino lehen aipatu nahi dut hemen. Ikusi al duzue, besteak beste, San Telmoko izkinako seinale kokkorra nola luzitu berri diguten? Ez? Azpiko partean, txartela: «Euskal Herrian euskaraz!», eta goiko erdian, berriz, estali gabea: «Bertakoak izan ezik». Hamaika holako.)

esaldiak

«Bizitzako gauza nabarmenenak sumatzen ditugu, baina ihes egiten digute interesgarriek»

FRANCIS DIEZ

(Doctor Deseo taldeko abeslaria)

«Futbolearen presioa jasaten ez duena joan dadila Hirugarren Mailara jokatzera»

MIGEL ANGEL LOTINA

(Osasunako entrenatzailea)

«Gure belarrien etorkizuna ez da batere ona, gero eta zarata handiagoa dagoelako»

GABRIEL CILLERO

(Otorrinolaringologoa)

«Telebistan, gaur egun, berriak eta ezberdinak bakarrik lortzen du arrakasta»

JOSE MIGUEL CONTRERAS

(Ekoizlea)